mutuaLEX

55 zk. / 2019 urtea

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko martxoaren 30etik apirilaren 5erako astea.**

## I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

### Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2019/04/01

- Gipuzkoako Gasolindegien Hitzarmen Kolektiboaren 2019ko soldata berrikuspena. 1859 xedapena – 5 or.

## II.- XEDAPEN OROKORRAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

### 2019/03/30

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak. -** 9/2019 Errege Lege-dekretua, martxoaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen den aldi baterako laneko enpresak arautzen dituen ekainaren 1eko 14/1994 Legea, portuko zamaketarien jarduera horretara egokitzeko eta langileen erregimena legez egokitzeari amaiera emateko, salgaien manipulaziorako portu-zerbitzua eman dezaten. 2019-4668 xedapena - 14 or.

- **LAN MINISTERIOA, MIGRAZIOAK ETA GIZARTE SEGURANTZA. - Itzulera plana. -** 2019ko martxoaren 27ko Ebazpena, Migrazioen Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2019ko martxoaren 22ko Ministroen Kontseiluaren Akordioa, Espainiara Itzultzeko Plana onesten duena. 2019-4705 xedapena - 92 or.

### 2019/04/01

- **OGASUN MINISTERIOA. - Pertsona Fisikoen gaineko Errenta eta Ondarearen gaineko Zerga. -** Martxoaren 4ko HAC/277/2019 Aginduko hutsen zuzenketa. Horren bidez onesten dira Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenerako ereduak, 2018ko ekitaldian; zehazten dira horiek aurkezteko tokia, modua eta epeak; ezartzen dira Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren aitorpenerako zirriborroa eskuratzeko, moldatzeko, berresteko eta aurkezteko prozedurak; zehazten dira biak bide telematikoz edo telefonikoz aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura, eta aldatzen da HAP/2194/2013 Agindua, azaroaren 22koa, zeinak arautzen dituen zerga arloko autolikidazio jakin batzuen, aitorpen informatiboen,

aitorpen zentsalen, komunikazioen eta itzulketa eskaeren aurkezpenerako prozedurak eta baldintza orokorrak. 2019-4714 xedapena - 2 or.

**2019/04/02**

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA - Europako Parlamenturako hauteskundeak. -** 206/2019 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, Europako Parlamenturako hauteskundeetara deitzekoa. 2019-4820 xedapena - 3 or.

**2019/04/03**

- **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA. - Ordainketen kontuak. -** 164/2019 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, finantza egoera zaurgarrian edo bazterketa jasateko arriskuan direnentzat ordainketen oinarrizko kontuetarako doako erregimen bat ezartzen duena. 2019-4906 xedapena - 7 or.

**2019/04/04**

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Animalia osasuna. -** APA/385/2019 Agindua, apirilaren 2koa, zeinak aldatzen baitu uztailaren 14ko AAA/1424/2015 Agindua, mihi urdinaren gaitzetik babesteko neurri espezifikoak ezartzekoa. 2019-4949 xedapena - 3 or.

- **OSASUN, KONTSUMO ETA ONGIZATE MINISTERIOA**

  - **Nazioarteko adopzioa. -** 165/2019 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, nazioarteko Adopzio Erregelamendua onartzekoa. 2019-4951 xedapena - 26 or.

  - **Substantzia eta produktu psikotropikoak. -** SCB/387/2019 Agindua, martxoaren 25ekoa, zeinak substantzia gehiago eransten dituen Substantzia eta prestakin medizinal psikotropikoak eta haien fabrikazioa, banaketa, preskripzioa eta ematea arautzen dituen urriaren 6ko 2829/1977 Errege Dekretuaren eranskinean. 2019-4952 xedapena - 2 or.

- **ESPAINIAKO BANKUA. - Kreditu entitateak. -** 2/2019 Zirkularra, martxoaren 29koa, Espainiako Bankuarena, Batzordeen eta Batzordeen Egoeraren Agiri Informatiboaren baldintzei eta ordainketen kontuak konparatzen dituzten webguneei buruzkoa, zeinak moldatzen duen ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra, kreditu-erakundeei eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileei zuzendua eta banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak ematean izan beharreko erantzukizunari buruzkoa. 2019-4955 xedapena - 23 or.

- **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA. - Ibilgailu motordunak. Aseguruak. -** 2019ko martxoaren 20ko Ebazpena, Aseguruen Zuzendaritza Nagusiari eta Pentsio Funtsei buruzkoa, zeinaren bidez argitaratzen diren zirkulazio istripuan pertsonari eragindako kalteak baloratzeko sistemaren kalte-ordainen kopuru gaurkotuak. 2019-5015 xedapena - 2 or.

- **SEGURTASUN NUKLEARRAREN KONTSEILUA. - Zentral nuklearrak. -** IS-43 Jarraibidea, 2019ko martxoaren 20koa, Segurtasun Nuklearraren Kontseiluarena, zentral nuklearrek segurtasun fisikoaren gaineko gertaeren jakinarazpenak egiteko irizpideak ezartzen dituena. 2019-5018 xedapena - 12 or.

**2019/04/05**

- **OGASUN MINISTERIOA. - Antolamendua. -** 2019ko apirilaren 4ko Ebazpena, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Presidentetzarena, 1992ko martxoaren 24koa moldatzen duena, Finantza eta Zerga Ikuskapen Sailaren eskumenekoak diren zergen ikuskapena antolatu eta funtzioak esleitzeari buruzkoa. 2019-5023 xedapena - 5 or.

**E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

**2019/04/01**

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA. -** 52/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2020 urteko jaiegun egutegia onartzeko dena. 1629 xedapena – 2 or.

**2019/04/03**

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA. -** EBAZPENA, 2019ko martxoaren 13koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresen hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailutu eta argitaratzeko xedatzen duena, 2016., 2017., 2018., 2019., 2020., 2021., 2022. eta 2023. urteetarako (hitzarmenaren kodea: 86002235012003). 1678 xedapena – 22 or.

**2019/04/04**

- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA. -** EBAZPENA, 2019ko martxoaren 26koa, Finantza Politikako zuzendariarena, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak ezartzen baitira Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek eta beren erakunde gordailuzainek Euskadiko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen erregistroarekin dituzten harremanetarako. 1693 xedapena – 4 or.

**2019/04/05**

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK**
  - ERABAKIA, Gipuzkoako Batzar Nagusien Osoko Bilkurak 2006ko uztailaren 2an onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusien Araudiaren aldaketaren onarpenari buruzkoa. 1718 xedapena – 4 or.
  - EBAZPENA, 2019ko martxoaren 27koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 1/2019 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 12koa, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzen zenbait birsailkapenen neutraltasun fiskala ezartzen duena.. 1719 xedapena – 1 or.

**A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

**2019/04/02**

- **DIPUTATU NAGUSIAREN FORU DEKRETUAK. -** Diputatu Nagusiaren apirilaren 1eko 142/2019 Foru Dekretua, Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeen deialdiari buruzkoa. 953 xedapena – 2 or.

**2019/04/03**

- **BATZAR NAGUSIAK**

- 5/2019 Foru Araua, martxoaren 13koa, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien arteko lankidetza hitzarmena berresteko. Hitzarmenaren helburua da gauzatzea aldizkako argitalpenak, irrati eta telebista programak eta beste komunikabide batzuk euskaraz jasotzeko herritarrek duten eskubidea, zeina aitortuta dagoen euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legeko 5. artikuluan . 960 xedapena – 2 or.

- N6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Arabako Errepideen 2016-2027rako Plan Integrala onartzekoa. 961 xedapena – 2 or.

**B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**2019/04/02**

- **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. – Ahaldun Nagusia**

  - Ahaldun Nagusiaren 36/2019 FORU DEKRETUA, apirilaren 1ekoa, Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituena. 4 or.

  - Bizkaiko Foru Aldundiaren 28/2019 FORU DEKRETUA, martxoaren 26koa, zeinaren bidez arautzen baitira 2019ko maiatzaren 26ko Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan erabiliko diren baliabide materialak. 6 or.

**2019/04/03**

- **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**. - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 13ko 2070/2018 Foru Aginduko hutsen zuzenketa; foru agindu horren bitartez, baimena ematen da zorrak kreditu- edo zordunketa-txartela erabilita ordaintzeko, ordainketapasabidearen bidez. 1 or.

**2019/04/04**

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK**

  - 1/2019 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko Zergarena. 5 or.

- 2/2019 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua aldatzen duena. 4 or.

- 3/2019 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko sailaren Tasak arautzen dituena. 11 or.

- 4/2019 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien Zerga-Araubideari buruzkoa. 33 or.

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA. -** Okerrak zuzentzea Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako landa- eta hiri-Ondasun Higiezinen Balio-Txostenetan. 1 or.

**2019/04/05**

- **BIZKAIAKO BATZAR NAGUSIEN. -** Bizkaiko Batzar Nagusien Araudiaren 76, 142, 154 eta 179 artikuluak aldatzeari buruz Araudi eta Jaurpiderako Batzordeak 2019ko martiaren 26an hartutako Erabagia. 3 or.

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**2019/04/02**

- **DIPUTATU NAGUSIA. -** 1/2019 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzekoa. 2104 xedapena – 2 or.

**2019/04/03**

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK**

  - Gipuzkoako Batzar Nagusien Osoko Bilkurak 2006ko uztailaren 2an onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusien Araudiaren aldaketa. 2060 xedapena – 4 or.

  - Ebazpena, 2019ko martxoaren 27koa, Gipuzkoako Batzar Nagusiena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 1/2019 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 12koa, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzen zenbait birsailkapenen neutraltasun fiskala ezartzen duena. 2064 xedapena – 1 or.

- **EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA**

  - 0263 LI/2019 Foru Agindua, martxoaren 29koa, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako foru diputatuarena, %75 [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatuan oinarritutako produktu fitosanitarioak lurrean aplikatzeko zenbait jarraibide ezartzen dituena, Gipuzkoako mendietan, koniferoei hosto galera eragiten dizkieten gaitz kriptogamikoei aurre egiteko. 2124 xedapena - 3 or.

**2019/04/05**

- **GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA. -** 425/2019 Foru Agindua, martxoaren 29koa, Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko zerbitzu kartari buruzkoa, eranskinean agertzen dena. 2099 xedapena - 7 or.

**E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):** **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur
Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95
e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es
MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO